

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

**Kultura Astea Luis Ezeiza
Herri Eskolan /8**

ELKARRIZKETA

**Iñaki Agiriano,
bibliotekaria /9**

LEINTZ GATZAGA

**Santa Agedan,
bapo-bapo! /10**

ARIZMENDIK IKASTOLA BERRIA EGINGO DU HERRIAN

LEHEN LANTEGIA LASTER IKASTOLA

ELKARRIZKETA: MIRIAM URKIA/5 • KIROLAK: NEEDZA ENTRENATZAILEA/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 15
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 16
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39 |

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00/12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00/10:00
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

KORUETA
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 11:30

GELLA/GALARTZA/IZURIETA
Ez dago mezarik.

OHARRAK

GERNIKA DEIALDIAREN AURKEZPENA
Bihar, zapatua, Gernika Deialdia herri plataforma aurkeztuko dute herrian. Ekitaldia udaletxe aurrean izango da, 12:30ean.

SANTA AGEDA MUTILAK
Santa Ageda egunean hasi eta Aratuste-domekara bitartean, domekero egingo dute dantzan Santa Ageda mutilek, Herriko Plazan, 19:00etan.

PANPINA IKASTAROA
Panpina ikastaroa antolatatu du Udaleko Kultura Sailak. Goizean eta arratsaldean emango dituzte eskolak, errelebuka lan egiten dutenak kontuan hartuta. Izena emateko kultura etxera joan behar da, eta 20 euro ordaindu.

KINTO AFARIA
1950ean eta 1951ko urtarri-lean eta otsailean jaiotako lagunek kinto afaria egingo dute otsailaren 22an Taberna Berrin. 19:30ean, meza egongo da hildako kintoen alde. Izena otsailaren 16a baino lehen eman behar da, Taberna Berrin.

AINGERU GUARDA EGUNA
Martxoaren leian, Aingeru Guarda eguna ospatuko dute Basotxoko bazkideek. Bazkarira joan gura baduzu, galdetu Basotxon.

LORAMENDIRENAGENDA

IKASTAROAK
Oraingo astean bertan hasi dira eskulanean eta baini-ken, patchwort-en, trapuzko panpinen eta bordatuen ikastaroak. Oraindik lekua dago guztietan.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA
Martxoaren 15ean (zapatua) antolatu dute irteera, Loramendiko lagunendako eta bazkideendako. Izena otsailaren 28a baino lehen eman behar da.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Hiru aretxabaletar Donostiako Sei Orduetan


Orain dela zortzi urte, 1995ean, hiru aretxabaletar izan ziren protagonista Belodromoko Sei Orduetan: batetik, omenaldia egin zieten Iñurrategi anaiei; eta, bestetik, Asier Guenetxeak txirrindularitza proban hartu zuen parte, Palacinekin batera. Hamabigarren geratu ziren.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

Zalapartara

Mugimendu azkar eta bortitza.
— Oillua eskutan artu giñuanian demaseko zalapartarak jote zittuan.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Leire Cáceres
Urtarrilaren 24an, 4 urte. Berandu bada ere, zorionak, lagun partetik.



ARETXABALETAK
Oxel Vázquez
10ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, anaiaren eta gurasoen partetik.



ARETXABALETAK
Anne Paul
12an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, familia-koen partetik.



ESKORIATZA
Josu Gálvez
12an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Henar Valor
12an, 4 urte. Zorionak, etxekoen eta Jose Arana-ko lagun partetik.



ESKORIATZA
Manex Larzabal
15ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Almen-go lagun partetik.



ESKORIATZA
Enrike Iglesias
15ean. Zorionak! Utziko dizkidazu 30 euro? Ez zait zure oparirako iristen.

MARIA JESUS ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

Modazko Book-ak

Ezteiak Jaunartzeak Publizitateko Argazkiak

Zaharberritzeak, Errebelatuak, Argazki Digitala, eta Karneerako Argazkiak.

ARABA IBILBIDEA 27 1- D ARETXABALETAK (GIPUZKOA)
943 771255 - 656 732463 shibat@wanadoo.es

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- NOBELAK**
- 'Zorrotz begiratutako trenak' / Bohumil Hrabal
 - 'Ipuin batean bezala' / Joan Mari Irigoien
 - 'Zorion perfektua' / Anjel Lertxundi
 - 'Errautsera arteko sugarra' / Imanol Zurutuza
 - 'Igogailuak, Dow Jones eta beste droga batzuk' / Eneko Barberena
 - 'Ekialdeko mamuak' / Jon Arretxe
 - 'Eratzunen jauna. I, Eratzunen Elkarteak' / J. R. R. Tolkien
 - 'El hombre duplicado' / Jose Saramago
 - 'El tiempo de las mujeres' / Ignacio Martínez de Pisón
 - 'La niebla y la doncella' / Lorenzo Silva
 - 'El imperio de las tinieblas' / Christian Jacq
 - 'La guerra de las coronas' / Christian Jacq
 - 'Emperador: las puertas de Roma' / Conn Iggulden
 - 'Esperando el voto de las fieras' / Ahmadou Kourouma

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak


MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ San Valentin ospatu arren, gero eta dibortzio gehixago dauz. Ze uste dozu?



ARRATE AXPE
Langillie



JUANTXO TORRES
Langillie



MARISA MIGEL
Langillie



MIKEL OSKOZ
Langillie



NAGORE RICO
Langillie



JABIER ARKAUX
Langillie

Ez dakit, baiñe egixe da gero eta gehixago entzuten diela dibortzio kontuek. Iguel izengo da jentie oin ez libriagoe dalako eta parejako konpromisue ez dala horren haundixe.

Baietz, hori hola dala. Lagun asko dittut separau dienak. Uste dot oin ez dutzegule elkarrei ezte aguantetan, eta hor dau problemie. Gaiñera, oin erreague da dibortzietie.

Ez dot uste. Nere ustez, oin eta lehenago jentie antzera dibortzietan zan, ez gehixago eta ez gutxiago. Ez dakit, baiñe ez dot uste dibortziuea oingo kontue bakarrik danik.

Bai, uste dot hola dala. Gaur egun uste dot parejako bizi-moduen entendimentu eta komunikaziño falta haundixe daguela. Neu, zorionez, oin dala hiru urte ezkondu nitzen, eta oso pozik nago.

Bueno, lehenengo eta behin esan bihera dauket ez dote la siñisketan San Valentin egunien. Separiziñuen kontue dala-eta, uste dot baietz, gero eta jente gehixago dibortzietan dala.

Ez, hori guzurre dala uste dot. Oin igual samurrague da dibortzietie, baiñe gero, atzera be, juntau egitten die. Nere ustez, lehenago eta oin jentie antzera dibortzietan zan.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK BASABE ETXEARI Atzegi eta Aratz elkarteek, urte luzez borrokan ibili eta gero, lortu dute, azkenean ere, gutxitu psikikoen dako etxe bat eraikitzea. Txaloak, hortaz, proiektu hori errealitate bihurtzeko lan egin duten talde, erakunde eta gizabanakoei. Gainera, etxebizitza herriaren erdigunean dago, eta horrek gutxituen integrazioa erraztuko du. Oraingoan, bete-betea asmatu dute. /A. L.

ETABARRUAN...

ASTEKO GAIA /4

ELKARRIZKETA /5

KIROLAK /06

Ikastola berria herrian

Legaia lantegia egon zen eraikina erosi du Arizmendik, eta Aretxabaleako Ikastola egingo du bertan.

Miriam Urkia

UZEIn lan egiten du; Lexikografia Salleko zuzendaria da. Euskaltzain urgazle izendatu berri dute.

Needza Zivojevic

Erregionaleko bigarren mailako entrenatzaileak taldearen inguruko kontuak ditu hizpide.

ASTEKODATUA

900

EURO SAHARAKO EMAKUMEENDAKO


Aretxabaleako Udalak 900 euro emango dizkio Saharako Emakume Batasun Nazionalari. Hala, Udalak Sahararen autodeterminazioaren aldeko egitasmoari elkartasuna erakutsi dio.

BESTEKEESANA

“Nire ustez nekazaritza ekologikoan hologramaren ideia nabarmentzen da; hau da, parte batean osotasuna ikustea. Kasu honetan, nekazaritza ekologikoa praktika alternatiboen parte bat da, baina parte horretan ia-ia osotasuna ikusten da, gauza askorekin konektatuta dagoelako. Ez bakarrik elikadura berri batekin, baizik eta natura eta ekologia ulertzeko modu batekin. Neurri handi baten gizarte praktikak ulertzeko modu batekin, beste balore-sistema batekin. Egun gutxiengoan dago, gauza interesgarri asko bezalaxe. Errezetarik ez daukat, baina nire ustez nekazaritza-ekologikoa gure euskal gizarte honetan izan dezakeen potentzialitatea ez gara ari garatzen.

JON SARASUA
‘Ekolurra’/2003 - 13. zenbakia

HERRITARRENBERBAK/ Xabier Sarasua



Etxafleroak eta tiroak

Santa Ageda mutilen ohituraz berba egitea neukan pentsatuta. Ohitura zaharren herribalioaz, tradizio folkloriko hutsal bihurtzeko daukaten arriskuaz, kantuaz, dantzaz, neskez eta mutilez, parrandaz, gehiegikeriez...

Baina ez. Beste gizon bat erail dute. Joseba. Danba! Danba! Danba! Lau tiro bota eta kitto! Bat gutxiago, herriaren izenean.

Neure burua ezkertiar, antimilitarista eta herri zein pertsona guztien eskubide guztien aldekotzat baldin badaukat, basakeria honen aurrean ezetz esan beharra daukat.

Tortura, presoan sakabana-keta eta tratu txarrak, 3. graduaren ukazioa, autodeterminazioa ukatzea eta estatu inperialisten Euskal Herriarekiko eraso guztiak injustizia maltzur direla aldarrikatzen badut, pertsona bat erailtzea injustizia ikaragarria dela ere esan beharra daukat.

Astakeria eta ankerkeriarik gordinena izateaz gain, ordea, guztiz zentzu bakoa ere bada, nire ustez. Zer lortu du ekintza honen egileak, pertsona bati bizia kendu eta inguruan sufri-mendu sendaezina sortzeaz gain? Arerio politikoa indartzea eta gatazkaren irtenbidea

urruntzea: Aznarren arazoak estali, presoan aurkako zigorrak gogortzearen aldekoak biderkatu, abertzaleen arteko elkarlana zaildu...

Euskadi eta askatasuna? Bai, noski. Euskadi denontzat eta denon artean, horrela

soilik baita izango. Askatasuna berriz, herriarentzat eta baita herritar guztientzat ere. Borroka politikoari ekiteko eta demokrazian sakontzeko unea da. Eta horretarako ETA oztopo handi bat da.

Topa diezaiotela/diezaiogun amaiera duin bat lehenbailehen. Eta has gaitzen behingoz, herria eraikitzen. Ezkerretik eta askatasun gehiago lortu asmoz, zentzu guztietan eta denontzako.

“Has gaitzen herria eraikitzen. Ezkerretik eta askatasun gehiago lortu asmoz, zentzu guztietan eta denontzako”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Kontu serioak

Arduratuta nator aste honetan. Joan zen egubakoitzean Goienkarian irakurritakoak lorik ezin eginda utzi nau. Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak izugarriko aldaketak proposatu ei dituzte Debagoienarako; baita Aretxabaletarako ere. Urkulun bigarren urtegia, Bedoñatik Erañara bitartean etxebizitzak barra-barra... 2016 urterako 110.000 biztanle izango ei gara ibarrean.

Zertarako hainbeste etxebizitza? Bigarren urtegi baten beharra daukagu? Non geratuko dira gure baserriak, Urkuluko lasaitasuna, non? Ez dakit proiektua aurrera eroango den, baina hala bada, ondo pentsatuta egin ditzatela gauzak, mesedez.

Utz ditzagun momentuz alde batera hain kontu serioak, eta jo dezagun aurrera. Joan zen zapatuan Pepsi jaialdia izan genuen herrian. Biserak, kamisetak, motxilak... banatu zituzten; neuk ere eroan nuen zertxobait etxera. Hala ere musika entzuteko aparatua tokatu zitzaiona ni baino alaiago joango zen.

Bukatzeke, gaztetxeke kontuak aipatu gura nituzke. Izan ere, atzo, eguena, asanblada berezia egin zuten-eta. Ez nuen joaterik izan, baina izango dugu euren berri, seguru egon...

HEZKUNTZA/ Arizmendirekin hitzarmena sinatu berri du Santa Ritak

Aretxabaletako ikastola egingo du Arizmendik Beroako eraikinean

MIRARI ALTUBE

Beroa bota egin zuten, baina Legaia enpresa egon zen eraikina zutik utzi dute. Arizmendik erosi du eraikina, eta 2004-2005 ikasturteetik aurrera bertan kokatuko da Aretxabaletako Ikastola. Santa Ritak ere han izango du egoitza.

Santa Ritak eta Arizmendik lan-kidetzarako hitzarmena sinatu dute oraintsu. Arizmendik, gainera, Legaia enpresa egon zen eraikina erosi du, eta hantxe izango du laster egoitza Ikastolak.

150 UMERENDAKO TOKIA

Santa Ritako Haur Hezkuntzako umeek egoitza berria izango dute 2004-2005 ikasturteetik aurrera. Aretxabaleta Okindegia gainean egongo da, Legaia enpresa egon zen lekuan. Eraikinak 2.300 m² ditu eta 150 neska-mutikorendako lekua izango du. Adin bakoitzean gela bi egongo dira eta ekimendu guztiekin ornituta egongo da ikastola.

Ingurua txukundu bezain laster hasiko dira berritze lanak, eta urte eta erdian bukatuko direlakoan daude Arizmendi Ikastola-ko arduradunak.

BIEN BITARTEAN

Santa Ritaren eta Arizmendiren arteko harremanak orain dela



Legaia enpresa egon zen lekuan kokatuko da laster Aretxabaletako Ikastola.


hiru urte hasi ziren, eta estutuz joan dira. Santa Rita ez da itxiko eta umeak bertan dauden bitartean orain artean bezala jarraituko dute. Aurreikusitako proiektua

aurrera doa Aretxabaletari ikastola berria eskaintzeko helburuarekin. Hau izan da hiru urteko elkarlanean egindako ibilbidearen emaitza.



Euri jasek errepidea zartatu zuten Arkarazon

Joan den asteko euri jasek leku askotan egin dituzte kalteak. Aretxabaletatik Arkarazoko hainbat baserriara doan errepideko lurrek, esaterako, behera egin zuten, eta izugarriko zartadurak atera zitzaizkion bidetari. Konpontze lanak luze joango direla ikusita, erabat berritu beharko da-eta, Udalak beste bide bat egokitu du lehen-goaren aldamenean./M.A.



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)

Tel.: 943 77 13 57

ARETXABAleta

Expres



Santakurtz, 16
943 79 23 43



EGVNEKO MENYAK
OTARTEKOK ETX
PLATER KONBINATVRK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABAleta

ARETXAGAZETA

ELKARRIZKETA

MIRIAM URKIA/EUSKALTZAIN URGAZLEA

“Gure euskara behar berrietara egokitzen ez badugu, jai daukagu!”

MIRARI ALTUBE

UZEIko Lexikografia Saileko zuzendaria da, baita Euskaltzaindian Hiztegi Batua osatzen dabilen lantaldeko kidea ere. Urtarrilaren 31n, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak, beste 20 lagunekin batera.

Zer esan gura du euskaltzain urgazle izateak?

Euskaltzaindiak ematen duen izendapena da. Nire kasuan, Hiztegi Batuko lantaldeko kide naitzeko izan da, taldeko beste bi lagunekin batera. Hau da, Euskaltzaindiko batzordeetan parte hartzen dugulako.

Hurrengo pausoa euskaltzain izatea da?

Kar-kar-kar. Euskaltzain oso esan gura duzu? Ez, jakina, ez dago nire planetan. Horretarako ezin da bat edozein izan...

Sarritan, Euskaltzaindiak nahastu egiten gaituela uste izaten dugu...

Ez da horrela. Baliteke lehen modu batera idaztea eta orain beste batera. Izan ere, arautzen hasi denean, hain justu, euskararen tradizioan oinarrituta erabilerak proposatu dituenen, hartuak genituen ohitura batzuk aldatu egin behar izan ditugu. Baina ez lehendik esandakoa aldatu duelako, behingoz zerbait pro-



ARETXAGAZETA

posatu eta arautu duelako baizik.

UZEI hiztegiak egiten dituelako ezagutzen dugu. Zein da zure lana?

1992a ezkerko Lexikografia Saileko zuzendaria naiz. Labor-labor esateko, gure lanak XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa osatzea, Hiztegi Batuko lantaldearendako prestalana egitea eta, tarteka, hiztegitxoren bat kaleratzea direla esango nuke.

Zer da XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa?

Corpusean ia 5 milioi berba daude jasota, XX. mendeko eus-

kararen erakusgarri izan nahi dutenak. Irizpide batzuen arabera dago sailkatuta guztia. Hain zuzen ere, corpus hori da, Orotariko Euskal Hiztegiarekin batera, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren oinarri. Corpusa bukatuta dago, gainera, eta Interneten kontsulta daiteke.

UZEIk hiztegi teknikoak bakarrik egiten ditu?

Ez, ba! Hasieran, hala zen, baina Lexikografia Sailea 1986a ezker dago, eta lan nagusietako bat XX. mendeko corpus estatistikoa lantzea izan da. Hiztegi Batuko prestalana ere sail horretan egiten dugu.

Euskara garai berrietara, hau da, informatika eta komunikazio garaietara egokitzea samurra da?

Ez, baina horri ere heldu behar zaio, euskara biziko bada. Behar berrietara egokitzen ez bada, jai daukagu! UZEIn informatikako programak eta hala-koak euskaratzen dituzte. Gaur egun, termino asko sortzen dira, egunero, ingelesez gehienak, eta horren aurrean zer egin? Bat, ingelesa bera erabili, hainbat hizkuntzatan egiten den moduan, egokitu barik; bi, gaztelaniara egiten den egokitzapena oinarri hartu eta gureganatu; eta hiru, euskaratu. Neure iritziz, azken hori da bidea, eta jende asko dabil horretan lanean.

TXUTXUMUTXUA



Coruña, Kepari babesa eskaintzera

Joan den asteburuan, 33 aretxabaletar Coruña izan ziren. Ez ziren egun pasa joan, ezta txapapotea jasotzera ere, Kepa Urta presoari laguntza eta indarra ematera baizik. Hiru orduko kale bilkura egin zuten Curtisko kartzela aurrean. Kepa txapeo muga-gabean dago, berak hala eskatuta, isolamenduko moduluetan dituen lagunak atera arte. Atzo, otsailak 13, bestalde, Keparen urtebetetzea izan zen, baita torturaren aurkako eguna ere. Hori dela eta, kale bilkura egin zuten herrian. /M. A.

LABUR

EKHEren Aretxabaletako Komiteak Bordagain sozietateko 28 akzio saldu ditu herrian

Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarteak lau urte bete ditu. Urte horietan, Gara egunkaria, Zazpika astekaria, Argazki Press agentzia eta beste hainbat ekimen jarri ditu abian. Egoitza berria ere inauguratu du Lapurdin. Orain, Hedagune ekimen berritzailea jarri gura du abian, eta horretarako, Bordagain sozietatea sortu du. Aretxabaletan ere sozietate horretako akzioak saldu dituzte -28, denera-, eta astean bertan bidali dizkiete EKHEko arduradunei. Bide batez, eskerrik asko, akzioak erosi dituztenei.

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Taberna
Berri
jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

PAGALDAI


Opari denda
Burrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08



LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

NEEDZA ZIVOJEVIC/ERREGIONALEKO BIGARREN MAILAKO ENTRENATZAILEA

"Gure mailan talde indartsuak daude, baina baita makalak ere"

AMAGOIA LASAGABASTER

Urte bi daramatza Needza bosniarrak UDAko erregionaleko bigarren mailako talde entrenatzen. Urte bi hauetan partidu ugari irabazi dituzte, baina ez dira mailaz igo. Eta Needzak mailaz igotzea du helburu.

Zelan joan da liga orain arte?

Hasieran, partiduak irabaztea kostatu zitzaigun, baina gero, bolada ona hartu genuen. Orain, berriz, erritmo ona daramagula uste dut.

Partidu ugari irabazi dituzue, behintzat, eta gol ugari eginda, gainera. Zelan lortzen da hori?

Ez dakit. Gure mailan talde indartsuak daude, baina baita makalak ere. Azken horiei irabaztea eta golak sartzea ez da gaitza izaten. Ni, behintzat, pozik nago nire mutilek egindako lanarekin.

Eta gaur egun, zelan dago taldea?

Apur bat lasaitu garela esango nuke. Jokalari gehienak eskolako azterketak egiten dabilta, eta, horren ondorioz, ez dira entre-



AL

"Mailaz igotzea dugu helburu. Joan den urtean ez genuen zorterik izan; ea aurten..."

namenduetara etortzen. Eurek badakite lehenengo ikasketak

direla eta gero futbola. Sasoi honetan, antzeko egoeran egoten gara urtero. Zorionez, jokalariek onetako osatutako talde zabala daukat.

Zein da zure helburua aurtenengo ligan?

Aurreko denboraldiko helburu bera: mailaz igotzea. Joan den urtean ez genuen zorterik izan; hortaz, ea, bada, aurten...

Lehia gogorra izango da?

Bai, horixe. Mailaz igotzea ez dago gure baitan bakarrik. Guk gure aldetik daukagun guztia ematen dugu, baina beste faktore batzuk ere badaude. Gainerako taldeen indarra ere kontuan hartu behar dugu.

Eta aurten ere ez bazarete mailaz igotzen?

Orduan, aldaketaren bat egin beharko litzateke. Entrenatzailea, jokalariak... Zerbait gaizki dabilen seinale izango da.

Hurrengo partidua zelan ikusten duzu?

Arrateren aurka jokatuko dugu, kanpoan, eta irabaziko dugulakoan nago.

Zer moduz ikusten duzu Realak?

Oso ondo. Jarraitzaile moduan liga horrela amaitzen gura dut.

XAKEA

Arlutz Xake Taldeak berriro irabazi zuen, eta saikapeneko lider da talde aretxabaletarra

Joan den zapatuan, hilaren 15ean, Arlutz Xake Taldeak Mikel Gure taldeari irabazi zion (3,5-0,5). Garaipen horren ondorioz, Aretxabaletako taldea lidertzan da, 20,5 punturekin. Edozelan ere, bihar, zapatua, postu hori gogor defendatu beharko dute aretxabaletarrak. Izan ere, Arlutz Xake Taldea bigarren postuan dagoen Ruta de Europa taldearen aurka jokatuko du Gasteizen.

KARATEA

Aretxabaletarrak ondo ibili ziren Eibarren jokatutako Eskola Arteko Karate Txapelketan

Joan den domekan, hilaren 9an, Eskola Arteko Karate Txapelketa jokatu zen Eibarren. Aretxabaletatik zortzi lagun joan ziren txapelketan parte hartzera. Horietatik bi, gainera, ondo baino hobeto ibili ziren: hain zuzen ere, Odei Vázquez bigarren geratu zen, alebinetan, eta Asier Castellano gaztea podiumetik gertu izan zen, benjaminetan; laugarren izan zen Asier.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Aloña Mendi
Preferentea.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

UDA-Burumendi
Gazteen Euskal Liga.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.(2)-Usurbil(2)
Gazteak.
Zapatua. 17:30. Iturrigorri.
Usurbil-Aretxab.(2)
Seniorrak.
Egubakoitza. 20:00. Añorga.

EMAITZAK

FUTBOLA

Hondarribia 0 UDA 2
Preferentea.

Kostkas 4 UDA 1
Gazteen Euskal Liga.

PILOTA

UDA 5 Antzuola 3
Bigarren mailako erregionala.
UDA/Almen (b) 2 Aluxar 0
Bigarren mailako gazteak.
M. Bihotza 1 UDA/Alm. (c) 2
Bigarren mailako gazteak.

UDA 2 Aurrera Ondarroa 3
Lehenengo mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 22 Beloki 16
Seniorrak.

Segura 22 Aretxab. 14
Gazteak.

Urretxu 22 Aretxab. 07
Aretxab. 22 Añorga 12
Seniorrak.

HYDRASOIN:

hidratatze programa trinkoa

Presta zaitez udaberrirako!

Zure altxor preziatuena
zu zeu zara


Zu zeu zara zure bizitzako
pertsona inportanteena

Horregatik zaindu beharra daukazu

Gemes

edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18



ERRETRATUZAHARRA

Lehenik mezetara, gero txokolatea hartzera, eta horren ostean batzera

Urtetan berdintsu iraun duen ohitura da Santa Ageda mutilena. Urteek aurrera egin ahala, ostera, beti aldatzen da zer edo zer. Lehen, esaterako, bai Santa Ageda bezperan bai egunean bertan, lehenengo mezetara joan behar zuten. On Angelek esaten zuen meza, 06:00etan, eta mezaren ostean txokolate beroa hartzen zuten, txurroekin edo pasteekin. Gero etxez etxe batzera, eta arratsaldean, orain bezala, plazara, dantzan egitera. Dantzan egitera ateratzen zituzten neskak ere ondo asko zaintzen zituzten, txokolatea eta pastelak gura beste emanda. Diru gehien non emango zieten ere bazekiten, "halako dendan edo hemengo etxean", eta leku haietan ondo kantatzen saiatzen ziren.

Erretratuan agertzen diren mutil guztiak ez dira

kinta berekoak: Ramon Bengoa, esaterako, urtebete gazteagoa da eta Xabier Urtzelai, berriz, urte bi gazteagoa. Ramonen kintakok, gainera, ez zuten dantzarik egin hurrengo urtean: Francok salbuespen-egoera ezarri zuen, eta dantzan egitea debekatuta zeukaten. Hortaz, batu bai, baina dantzarik ez. Europa osoan ezaguna zen Aretxabaletako zirklokros proba ere bertan behera geratu zen 1969an.

Goitik behera hasita, ezkerretik eskumara: Jesus Orobengoa, Ramon Bengoa, Jesus Martínez, Xabier Urtzelai, Iñaki Sasiain, Jesus Iturbe, Pablo Etxebarriarteun, Antonio Cortés, Manolo Dabila, Pedro Jose Urtzelai eta Jesus Mari Herrasti. Mutikoak: Roberto Urteaga eta Juan Mari Martínez.

Argazkia: Jesus Mari Herrasti



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Umeak nagusi Gernika plazan

Aldaketa nabarmena izan du Gernika plazak azken urteotan. Auzoko edade-
tuak batzen ziren plaza izatetik herriko umeen topagune izatera pasatu da. Udalak kulunkak jarri zituenetik, umeen jolas eta oihuak izan dira nagusi plaza txiki horretan. Urrian, gainera, ludoteka berria zabaldu zuten bertan. Umeek eta gurasoek estimuan dute gero Gernika plaza.



≈ 1993

Astelehen goizetan -azoka egiten zenean- bakarrik batzen zen jendea plazan; enparaiko ordu eta egunetan, oso gutxi.



2003


Umeen gozagarri bihurtu da kulunkak eta ludoteka batzen dituen plaza. Oso eguraldi txarra egin behar du plaza hutsik egoteko.



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34



SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

AMETS
TABERNA

Iparagirre, 4
Tel: 943 79 01 29
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 14a / 113. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Luis Ezeiza eskolan balioen gaineko ikasgaiak jaso dituzte Kultura Astean

AMAGOIA LASAGABASTER

Gaur, egubakoitza, amaitu dituzte Luis Ezeizan Kultura Asteko ekitaldirik garrantzitsuenak. Astelehenean (hilak 10) hasita, higienezekin, istripuekin, literaturarekin eta bazterketa sozialarekin lotutako gaiak landu dituzte, besteak beste, Kultura Astean.

Datorren eguaztenean, hilak 19, egingo dute Luis Ezeizan Kultura Astearekin lotutako azken ekitaldia. Egun horretan, *Helduen papera umeen heldze prozesuan* izenburuko berbaldia egingo du Ezozi Arizagak. Edozelan ere, Kultura Asteko ekitaldi gehienak oraingo astean egin dituzte Eskoriatzako herri eskolan. Astelehenean (hilak 10) hasi eta gaur arte, hainbat gairen gaineko berbal-

Eguaztenean, hilak 19, egingo dute Luis Ezeizan Kultura Asteko azken ekitaldia

diak, antzerki saioak eta era guztietako lantegiak egin dituzte Luis Ezeizako irakasleek, ikasleek bai eta gurasoek ere.

GURASOEN PARTE-HARTZEA

Luis Ezeizako Kultura Asteak hainbat giza balioen gainean hausnarketa egitea du helburu. Horregatik, eskolako arduradunek gurasoen parte-hartze zuzena bultzatu gura izaten dute. Izan ere, irakasleen esanetan, giza

Luis Ezeizako Kultura Asteak hainbat giza balioen gainean hausnarketa egitea du helburu

balioen gaineko irakasgaien sekulako garrantzia du familiak.

'BELTZITINA'

Astean egin dituzte ekitaldien artean, Luis Ezeizako arduradunek Panta Rhei taldeak egindako *Beltzitina* antzezlan nabarmendu dute. *Beltzitina*-k atzerapen psikikoa duen neskatxo baten istorioa kontatzen du, eta irakasleei gai horrek asko lagundu die hainbat giza balio lantzeko.



Luis Ezeizako umeek adi jarraitu dituzte Kultura Asteko ekitaldi guztiak.



700 kilo janari batu dituzte Arizmendin

Arrasateko Udaletik jaso zuen SERSO San Viator gobernuz kanpoko erakundeak SOS Sahara kanpainen parte hartzeko eskaera. Arizmendi osora zabaldu zuen hirugarren mundurako elkarrekin deialdia, eta Almen gunean 700 kilo janari jaso dituzte. Lekaleak, zerealak, olioak, atun-kontserba eta azukrea jaso dituzte, besteak beste, ikasleek. Batxilergoko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle talde bat arduratu da janaria jaso eta desertura bidaltzeko prestaketa lanez. Dena dela, arduradunek esan digutenez, janari gehien 6 eta 12 urte bitarteko umeek ekarri dute. Arrasaten sei tona, Bergaran lau tona eta Antzuolan 635 kilo janari jaso dituzte. /A.G.

MIKEL ERRARTE/SANTA AGEDA MUTILA

“Ez dut ulertzen zergatik jokutzen dugun horrela”

AINTZANE GARDOKI

Mikelek 18 urte beteko ditu laster. Horregatik, aurten, Santa Ageda mutil izan da. Dagoeneko txapel barik aurkitu dugu, eta berba bi kendu gura izan dizkiogu. Herriko auzoak eta baserriak ezagutzeko balio izan dio kinto izateak, behintzat.

Zer-nolako esperientzia izan da kinto izatea?

Orokorrean, ona. Bezperan, oso eguraldi txarra egin zuen arren, baserri baserri ibiltzea oso aberasgarria izan zen. Auzo batzuetara joan den astean heldu nintzen lehenengoz; esperientzia polita izan zen. Beste gauza batzuk, aldiz, ez ziren horren onak izan.

Aspaldiko urteotan kintoek hartu duten izen kaskarra ondo merezitakoa da?

Badirudi aurreko urteko kintoek egindakoak gainditu behar



ditugula-edo. Ez dut ulertzen zergatik jokutzen dugun horrela. Alkatuak deitu zigun orduak errespetatu eta herria errespetatzeko esanez, baina...

Herritarrek, dena dela, zelan erantzuten dute?

Uste baino askoz hobeto; batez ere, baserriarrek.

Zenbat etxafuego bota dituzue?

Uf! Ez dakit, baina asko! Ez ditut gustuko. Ez dut bakarrenez bota, baina, larregi bota ditugu.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIAMZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate) ..	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) ..	943 76 55 76

OHARRAK

GERNIKA DEIALDIA

Bihar, zapatua, Gernika Deialdia herri plataforma aurkeztuko dute Eskoriatzan. Ekitaldia Herriko plazan izango da, 12:00etan.

SAGORDOTEGIRA IRTEERA

Gazte Asanbladak antolatu du. Autobusa bihar, zapatua, irtengo da, autobus geltokitik, 18:30ean.

HITZALDIA; 'DESOBEDIENTZIA ZIBILA'

Datorren egunean, hilaren 20an, *Desobedientzia zibila* izenburuko hitzaldia izango da gartzetxean, 18:30ean.

LIBURUTEGI BERRIA ETA WEBGUNA

Datorren egubakoitzean, hilaren 21ean, liburutegi berria inauguratuko dute eta herriko webgunea aurkeztuko dute. Liburutegi berrian, 18:30ean.

AXTROKIRENAGENDA

KORRIKA 13

Apirilaren 4tik 13ra bitartean Mauletik Iruñara joango da 13. Korrika. Axtrokik, herriko talde, elkarte eta ikastetxeei Korrikaren alde lana egiteko deialdia luzatu die.

IÑAKI AGIRIANO/ESKORIAMZAKO BIBLIOTEKARIA

“Liburutegi berrian nagusien esparrua bultzatu gura dut momentu honetan”

AINZANE GARDOKI

Iñaki Agiriano arduratuko da aurrerantzean liburutegi berriaz. 1985ean hasi zen liburutegian lanean, baina azkeneko lau urteotan eszedentzian egon da. Proiektu berriak erakarrita, liburutegira etorri da berriro Iñaki.



A.G.

Ia lau urtez eszedentzian egon zara. Zer dela eta itzuli zara orain herriko liburutegira?

Liburutegi berriaren inguruan sortu den proiektu berriak ekarri nau berriro liburutegira. Neka-neka eginda nengoelako hartu nuen eszedentzia. Liburutegi zaharra txiki-egia zen. Ez zegoen gustura lan egiteko modurik. Lekuak berak ez zuen inolako irtenbiderik ematen. Orain, berriz, leku handia izango duzu.

Liburutegi zaharrak 87 m² ditu eta berriak, berriz, 450 m². Horrez gainera, liburutegia asko aldatu dira azkeneko urteotan; izan ere, dagoeneko ez dira liburuak batzen dituen espazio hutsa. Egun, gizartearen garapenak eraginda, beste euskarri eta informazio batzuk jasotzen dituzte liburutegiek.

Zergatik sortu zen liburutegi

berria egiteko asmoa herrian? Lehen esan dudan moduan, gizartearen izandako aldaketek erantzun guran erronkari heldu genion, eta lanean hasi ginen. Azken baten, gizartearen izandako aldaketek erantzuna eman gura izan diegu.

Zelakoa izango da, hortaz, liburutegi berria? Hainbat esparru izango ditu: Haurtxoteka, beti nagusi batekin lagunduta egon beharko duten 0 eta 5 urte arteko umeendako; Haur eta Gaz-

“Liburutegiak dagoeneko ez dira liburuak batzen dituzten espazio hutsak”

“Hasieratik hona, proiektuan gauza ugari aldatu ditugu, baina oso gustura nago”

teen txokoa, lan egiteko txokoa eta irakurketa txokoa izango duena. DVD aparatua eta hiru ordenagailu izango du esparru horrek, kontsultak egiteko edo Interneten nabigatzeko. Bestetik, nagusien esparrua egongo da: Hemeroteka, lanerako lekua eta lau ordenagailu izango dituena; eta, azkenik, Harrera Guneak aurreko esparruendako komunak diren materialak batuko ditu.

Zein izango da zure lana?

Nagusien esparrua bultzatu gura dut momentu honetan. Leku gehienetan moduan, gurean ere umeak liburutegiko espazioaz jabetu dira, eta hori ekidin gura dut. Umeek ere izango dute euren lekua liburutegian. Dena dela, askotan izaten duten ludoteka kutsuarekin apurtu gura nuke.

Liburutegiaren diseinuan parte-hartze zuzena izan duzu.

Bai, nahiz eta eszedentzian egon, makinatxo bat ordu sartu ditut liburutegi berria dela-eta. Donostiako hainbat liburutegitan eta Gipuzkoako hainbat herritan egon gara, egin diren liburutegi berriak ikusten. Hasieratik hona, proiektuan gauza ugari aldatu ditugu, baina oso gustura nago egindakoarekin.

Datorren egubakoitzean inauguratuko da liburutegi berria. Bai, 18:30ean izango da inaugurazio ekitaldia, liburutegi berriaren bertan. Herritar guztiak daude gonbidatuta inaugurazio ekitaldira. Berba bi egin ondoren, liburutegia ikusi ahal izango da. Hurrengo egunetan, gainera, hainbat ekin-tza egingo ditugu, jendea liburutegira hurrera dadin: ipuin kontaketa, txotxongiloak, Alberto Iñurrategiren hitzaldia...



Erretiratuak gustura dabilta “Tai Chi” egiten

60 urtetik gorako erretiratu koadrilatxo batek, *Tai Chi* egin gura zuela-eta, laguntza eskatu zion Udalari. Udalak lokala utzi bezain azkar talde txoa osatu, eta astean bitan elkartzen dira ekialdetik datorren eta gure artean hain modan dagoen *Tai Chi* egiteko. Gustura baino gusturago dabilzala esan digute jubilatuek; orain arte egindako beste gimnasiakin oso bestelako ariketak egiten ei dituzte. /A.G.

LABUR

Eskoriatzak ere sarean dauka webgunea

Datorren egubakoitzean -liburutegi berriaren inaugurazioan- aurkeztuko dute Udaleko arduradunek www.eskoriatza.net webgunea. Hortaz, datorren egubakoitzetik aurrera, herritarrek Eskoriatzaren gaineko era guztietako informazio izango dute sarean. Goienak garatu eta kudeatuko du webgunea, eta webgune dinamikoak izatea du helburu. Eten-gabe eguneratuko den albiste-gi elektronikoa ere izango du.

EDURNE

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

Aranburuzabala 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIAMZA

Elektroterapia.

LAGUNAK
DASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIAMZA
943 71 40 63

MIRENTXU
TABERNA
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Gatz Museoa, Turismo Bulegoa eta denda kudeatzeko deialdia egin du Udalak

AINTZANE GARDOKI

Gatz Museoa, Turismo Bulegoa eta herrian jarriko duten oinarritzko produktuen denda kudeatzeko deialdia egin du Udalak. Interesa duenak eta proiektua bere gain hartu gura duenak otsailaren 17 arte dauka udaletxean aurkezteko epea.

Udalbatzak, 2002ko abenduaren 26an egindako batzarrean, Gatz Museoa, Turismo Bulegoa eta oinarritzko produktuen denda kudeatzeko deialdia egitea erabaki zuen. Hala, museoa, Turismo Bulegoa eta herrian kokatu den dendaren kudeaketa bere gain hartu gura dutenek proiektua aurkeztu beharko dute Leintz Gatzagako Udalean, otsailaren 17a baino lehen. "Proiektu horrek erabateko garrantzia du guretako: museoa gure ondasun kulturalaren ispilua da, eta hori munduari erakutsi gura diogu; bestetik, oinarritzko produktuen denda berriro ere herritarrei eskaintzea ezinbestekoa dela uste dugu. Ogia, esnea eta egunkaria eskaini behar ditugu, behintzat, besteak beste", esan digu Joxerra



ARTXIBOA

Lehenbailehen gura du Udalak proiektua abiaraztea eta, batez ere, herritarrendako denda zabaltzea.

Agirreurreta alkateak. "Horrez gainera, ikusiko dugu denda zertan geldituko den, baina agian dastalekua ere izatea ez legoke gaizki", gaineratu du alkateak.

Proiektuak aurkezteko epea amaituta, udalbatzak aurkeztutako proiektuak aztertuko ditu: "Ez dakigu zenbat aurkeztuko diren, baina jendea badabil infor-

mazioa eskatzeko deitzen. Otsailko osoko bilkuran gai hori aurrera ateratzea da gure asmoa, eta lehenbailehen proiektua abiaraztea", azpimarratu du.

"Museoa gure ondasun kulturalaren ispilua da, eta munduari erakutsi gura diogu"

"Oinarritzko produktuen denda herritarrei eskaintzea ezinbestekoa da"

"Ez dakigu zenbat aurkeztuko diren, baina jendea badabil informazioa eskatzeko deitzen"



Santa Agedan, bapo-bapo!

Santa Ageda eguna aitzakia hartuta bazkari ederra egin zuten herriko erretiratuek Arrate jatetxean. 22 lagun elkartzu ziren bazkaritara. Paella eta legatza saltsan izan zuten bazkaltzeko; gero, postrea eta kafea. Bazkalostean, kantatu egin zuten, Santa Agedaren omenez: "Baina nahiko xeberre ibili ginen, ahaztuta ere bage-neukan-eta kantua", esan digute. Horren ondoren, batzuek briskan eta beste batzuek musean egin zuten, ilundu arte. Datorren urtean berriz elkartzeko gertu daude.

LABUR

Sahararen aldeko laguntza emango du herriak

Mendebaleko Saharak azkeneko 27 urteotan bizi duen egoerari irtenbidea emateko eskatu dio Gatzagako Udalak Nazio Batuen Erakundeari. Herriko alkateak sinatutako gutun bat bidali diote NBEko idazkari nagusi Koffi Annani.

Bestetik, Sorginak emakume taldeak ere Mendebaleko Sahararen aldeko kanpaina bultzatu gura du herritarren artean. Dena dela, oraindik ez dute erabaki zer egingo duten.

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

aroztegia
Leintz

Aingerugardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

**TOKI
ALAI
TABERNA**

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure etxearen osasun onerako



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:

Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tallerra:

Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETAK

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gas • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

PINTURAS



ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN
Iturgintza**

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza • Gas • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETAK
686 113 581 / 943 79 65 46

**TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETAK**

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



Instalazioen mantenuendu osoa
Berokuntza • Gas
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Dintura eta dekorazioa



Gimbert

San Migel 13, beheka C
ARETXABALETAK
609 143 119

**ARETXABALETAK
ITURGINTZAK**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETAK



**MUSAKOLAK
Pinturak**

Durana 27, 3. solairua
ARETXABALETAK
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

**J.J. ITURGINTZAK
IRURE**

URAK
GASAK
KALEFAKZIOAK



MITARTE 15
ARETXABALETAK

943 793 187



**Laster,
GIDA 2003
zure etxean!**

Gida osatuen,
erabilgarriena eta berriena.

Zure herriko
denden eta partikularren
telefonoen gida.